

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEA ELGETAN

8.SAIOA

DATA: 2023-02-01
PARTAIDEAK: <ul style="list-style-type: none">- Herritarrak: 8 parte hartzaile- Udaletik: Ibai Larrañaga (Ingurumen zinegotzia), Iraitz Lazkano (alkatea)- Goiener: Oier Etxeberria- Emun: Uxune Alustiza

LANTALDE JURIDIKO - ADMINISTRATIBOA

Iraitzek estatuetan zalantzan dauden puntuak ekarri ditu, denon artean adosteko:

- Bazkide batek kooperatiba uztea erabakitzen badu, berak egindako derrigorrezko ekarpena bueltatuko da? Erabaki da ezetz, uste dugulako ez garela diru kopuru handiaz ari (40€/100€) eta epealdi batean kooperatibaren onurak jaso dituelako.
- Zaintza batzordea sortuko dugu? Legez derrigorrezkoa da 100 bazkideetik gora dauden kasuan. Estatuetatik ezabatu ordez, oharra jasoko da esanez zaintza batzordea sortuko dela 100 bazkidera iritsitakoan.
- Errekurtso batzordea: legez inoiz ez da beharrezkoa. Hemen ere oharra jasota utziko da, esanez batzar orokorrak beharrezko ikusten duenean sortuko dela.

Udalak 4000€ jarriko dituela baieztatu du Iraitzek: 1000€ derrigorrezko ekarpen gisa eta 3000€ borondatezko ekarpen gisa.

Beste zalantzatxo batzuk daude, erabakiak hartzeko gehiengoaren kasuan, adibidez. Bergarakoei galdetuko dizkiegu zalantza horiek.

Izena libre dagoela zertifikatua: aldeko ebazpena ailegatu da Elgetako Energia Berriztagarrien Komunitatea izenarekin. Beste eskaera bat bidali da IXOTU izenarekin, eta, gero, bietako bat aukeratu eta Jaurilaritzan egin beharko da berriro libre dagoen eskaera.

Egunen batean kontratatu beharko da enpresa instalatzaile bat. Horretarako, plegu batzuk ere sortu beharko dira.

ENERGIA LANTALDEA

Oierrek aurkeztu du Robertorekin betetako Excel eredu bat. Bertan, hainbat datu sar daitezke gelaxketan (denon artean adostu beharko ditugunak), eta taulak automatikoki ematen du energia proiektua bideragarria izango den eta kooperatiba bideragarria izango den.

Hurrengo saiorako energia lantaldeak datu eta irizpide horien proposamen bat ekarriko du, denon artean adostuta uzteko:

- Finantzatzea behar dugun €.
- Aurreikusten den urteko aurrezpena €.
- Bazkide erabiltzaile onuradunen kopurua (proiektuan parte hartuko dutenak).
- Zenbat euroko ekarpena egin behar duen onuradun bakoitzak.
- Aurrezten dutenetik ze portzentaje kobratuko diegun kuota bezala.
- Gestoria batek egiten badu kooperatibaren kudeaketa, gastuak. Galdetu daiteke gestoria batean, datu erreago bat jartze aldera. Edo, hasieran, herritar bat bilatu hau egiteko gaitasuna duena, boluntario.
- Eta abar.

Zer gertatuko litzateke aurreikusitakoa baino jende gehiagok emango balu izena? Bi aukera daude: itxaron zerranda bat osatu, edo denak sartu eta bakoitzari energia koefiziente baxuagoa eman. Hasiera izanda eta jendea komunitatearen parte senti dadin, adostu dugu denak sartzea izango dela egokiena.

Aipatu da komeni dela hurrengo proiektua izango dena ere pixka bat pentsatzen hasia eta martxan jartzen hasia, adibidez, arreta bulegoa. Inguruko herrietako EBKekin elkarlanean egin daitekeen zerbait da, Bergara eta Elorriorekin adibidez.

Eskolako teilatuan plaka fotovoltaikoak dauzkate. Bi urte barru beteko dituzte 20 urte instalatu zirenetik, beraz, udalaren esku geratuko dira. Komunitatearentzat aukera berriak ekarriko ditu horrek, kiroldegia handitu eta teilatua frontoikoarekin bateratzearekin batera.

Jaurlaritzan kontsulta egin ostean, babestutako eraikinen teilatuetan ezin omen da instalaziorik egin. Oierrek esan du Otxandion ere kontsulta egin zutela eta erantzun zutela teilatuen azalera guztien %25en baietz. Aritzuko dugu.

Energia proiektuari lehentasuna jarri behar diogula esan dugu, estatutuak bideratuta daudelako eta aurkezpen ekitaldia ezin delako antolatu proiektua hobeto diseinatu gabe.

KOMUNIKAZIO LANTALDEA

Enaitzek azken hiru asteetako errondaren berri eman digu:

- PPT bat prest dago azalpen guztiekin, hobekuntzak ere sartu dizkiete.
- Guraso Elkartarekin bilera: oso ondo joan zen. Aurkezpena etortzeko eskatu genien, eta difusiorako kanala bihurtuko al ziren. Ados agertu ziren.
- Kirol elkarteak (3): bilera oso ondo joan zen, harrera ona. Konpromisoa hartu zuten euren difusiorako kanalak erabiliko dituztela gure berri emateko. Bideo eta testuak eskatu zituzten eta bidali genizkien.
- EH Bildu: bilera ondo joan zen. Hauteskunde emaitza edozein dela ere, EBKri babesa emango diotela esan zuten.
- Enpresa, komertzio eta tabernekina saio bikoitza antolatu genuen, bi orduz desberdinetan (16:30etan eta 20:00etan). 50 gutun inguru bidali genituen deialdia eginez. Inor ez zen agertu.

Pendiente geratu dira: EAJ (data lotzen). Goibeko (ez dute erantzun oraindik). Jubilatuen elkarteak (data euren jartzeko zain). Datorren saiorako hauek eginda izatea da asmoa.

Aurkezpen ekitaldia: erabaki dugu datarik ez jartzea oraingoz. Datorren saioan energia proiektuaren diseinua nola dagoen ikusi eta, horren arabera, erabakiko dugu noiz egin.

Behin aurkezpen ekitaldia egindakoa, erabakiko dugu komertzio eta tabernetara banan-banan noiz joan.

ITXIERA

Hurrengo saioa otsailaren 15ean, asteazkena, 18:30etan izango da.

Etxeko lanak:

- Bergarako EBKkoei eskatu estatutuak (Emun-Goener).
- Energia proiekturako irizpideen eta datuen proposamena prestatu (energia lantaldea)
- Egin gabe geratu den erronda bukatu: EAJ, Goibeko eta Jubilatuen elkarte (komunikazio lantaldea).